

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Ezker Iraultzailearen aldizkaria

www.euskalherriasozialista.net

67 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro

EAJ PPren gobernuaren
eta 78ko erregimenaren
erreskatera

Gobernutik bota behar dira

kaleko borrokarekin



Errepublika Sozialista Katalanaren
eta Euskal Herria Sozialistaren alde

EAJ PPren gobernuaren eta 78ko erregimenaren erreskatera

Gobernutik bota behar dira kaleko borrokarekin



Kataluniako mobilizazio ikaragarriak benetako inspirazio iturri dira Euskal Herriko langile eta gazteentzat. Sekulako borroka gauzatu dute erabakitzeko eskubidearen alde eta PP, Ciudadanos eta PSOEk osaturiko bloke atzerakoia errepresioaren aurka, preso politikoak kartzelaratu eta 155a aplikatu dituztenean. Eredu horrek erakusten digu, soilik mobilizazioak gelditu dezakeela Alderdi Popularra eta soilik horrela azpiratu daitezkeela EAJ, PP eta PSOEn arteko akordioak, Euskal Herrian ere gehiengoak kondenatzen baitute.

Azaroaren 4an Bilbon gehiengo sindikalak, EHBilduk, Gure Esku Dagok eta beste hainbat kolektibo sozialek deitu zuten manifestazioan azpimarratu zen ezin dela Katalunyako herriaren defentsaz hitz egin eta, aldi berean, hori bortizkeriaz erreprimitzen dutenak babestu edo horiekin gobernatu. Manifestazio amaieran irakurri zen manifestuak zioen bezala “Estatu antidemokratiko baten neurrikoak diren erabakien aurrean onartezina da

Euskal Herrian ere, edozein normaltasun instituzional eta lehen mailako akordio politikoak mantentzea horietako hiru indar politikoei (PP, PSOE eta Ciudadanos)”. EAJren buruzagitzak ulertu zuen berari zuzendua zegoela hor esandakoa, eta lau haizetara zabaldutako manifestazio hori anti-EAJ zela, parte hartzen duten Gure Esku Dago plataformaren aurka egin ez. Beste behin erakutsi zuen euskal burgesiaren alderdia ez dagoela prest bere aliantza politikarekin amaitzeko, ez Euskal Herri barnean ez kanpoan.

EAJ murrizketen eta PPko errepresio frankistaren konplize

EAJko agintariek Katalunya bisitatzen zuten bitartean eta Procesaren aldeko deklarazioak egiten zituztenean prentsan, modu oportunistaren bitartean manifestazioetara joanez, beste aldetik PSOEn ondoan kokatzen ziren herri katalanaren aurkako PPren ariete nagusi gisa. Baina zerbait ezin bazaio egotzi euskal burgesiari, hori

burgesia katalanarekin solidarioa ez izana da. Hortxe zegoen Urkullu, bere kideen artean, enpresari katalanen bileretan, izu larriz ikusten zutenean Katalunyako herri altxamendua eta mobilizazioarekin amaitzeko modua aurkitzen saiatzen ari zirenean. Noski, askoz erosoagoa zaio horrela, errepublika katalanaren alde bozkatu zuen eta bere erabaki legitimoa praktikara eramateko kalera atera zen herriaren alboan posizionatzea baino.

Urkulluk ez dio soilik uko egiten Euskal Herrian erabakitzeko eskubidea kontsekuenteki defendatzeari, gainera, lehenengoa izan zen urriaren 1eko galdeketa baliokide zaltzan jartzen eta edonola ere DUIa deklaratu zedin eragozteko saiatzen. Urkullu izan zen Puigdemont konbentzitzen saiatu zena lege espainolari men egiteko eta hauteskunde aurreratuak deitzen. EAJ ez da egon erabakitzeko eskubidearen ondorio guztiak defendatu dituztenen alboan; Kataluniako herria utzi eta xantaia erabili duten 2000 bankari eta enpresarien alboan

kokatu da, eta ez du zalantzarik egin Alderdi Popularrari jarraitzeko.

PPren errepresio politikak hilabete hauetan Catalunyan salto handia eman badu ere, egia esan hori ez da berria Euskal Herriarentzat. Altsasuko gazteek —Oihan Arnanz, Jokin Unamuno eta Adur Ramirez de Aldaque— urte bat baino gehiago daramate kartzelan, herriko festetako gau batean gertatutako tirabira baten ondorioz, terrorismoaz akusatuta. Kasu hauetako askori eta Ibon Iparragirre bezala larriki gaixorik dauden presoek aurkako krudelkeriari, orain preso politiko katalanak eta Mozal Legearen aplikazioaren ondorioz preso dauden gazte eta sindikalistak gehitzen zaizkie, PPko ustelak besterik gabe jarraitzen duten bitartean.

**Inolako akordiorik ez EAJrekin!
Eskubide demokratikoak eta
gehiengoaren interesak
defendatuko dituen ezkerreko
fronte baten alde!**

EAJk Madrilén 2018rako gastu zorua sinatu du PPrekin, trukean, EAEn defizit tarte handiago bat izango dela argudiatuz. Baina egia esan EAJren eta PPren arteko akordioek inoiz ez dute onurarik ekarri langile eta gazteentzat, ez Euskal Herri barnean, ez kanpoan. Hori izan da errealitatea

EAJk PPren 2017ko aurrekontuekin eta 2018ko gastu zoruarekin eginiko itunen ondoren, eta horrela izango da, aurreikusi daitekeen 2018ko aurrekontuei emango dien babesarekin. Oso argi dago: murrizketa sozialak osasungintzan, hezkuntzan eta euskal arlo publikoan, prekarietate handi batean jarraitzen duena; murrizketak berriz ere aurrekontu proiektu berriaren arabera etxebizitzako laguntzetan eta noski, DBEren (RGI) murrizketak pairatzen dituzten familia behartsuenen aurkako pertsekuzio demagogikoa jarraitzea.

Soberan dago esatea, PPrekin dagoen arazoa ez dela soilik ekonomikoa. Nola da posible Catalunyan 155a aplikatu ondoren, erabakitze eskubidea defendatu zuten milaka pertsona kolpatu ondoren, diktaduraren amaieraz geroztik ikusi ez den errepresio, jazarpen eta Goberneko partaideen kartzelaratzearen ondoren, esatea “PPrekin dauden erlazioak mantendu egiten direla absolutuki”, Aitor Estebanek orain dela egun gutxi esaten zuen bezala?

Testuinguru honetan, ulergaitza egiten da EHBilduren zuzendaritzak EAJrekin akordio integral” batetara iristeko duen “erabateko disposizioa”, Gara egunkariak pasa den azaroaren 9an azaltzen zuen moduan. Eta, era berean, ulergaitza da Elkarrekin Podemoseko zuzendaritzak EAJrekin “sintonia”

onean dagoela planteatzea. Podemoseko zuzendaritzak 155aren eta DUIaren arteko ekidistantzia planteatzean hartu duen jarrera, estatu mailan zein Euskal Herrian, erabateko akatsa da, eta indartu egiten ditu bloke atzerakoia maila guztietan gorakada errepresiboa handitzeko zabaldu nahi dituen aurreiritzi espainolistak. Elkarrizketarako eta itundutako erreferendumerako deiak, praktikan Catalunyako kaleetan dauden masekin posizionatzeari uko egitea eta EAJren estrategia demagogikoari jokoa egitea esan nahi dute.

Ezker Iraultzailetik uste dugu EHBilduk eta Elkarrekin Podemosek euskal gehiengo sindikal indartsuan oinarritu behar dutela eta mobilizazio orokor bat garatu behar dutela, jarraitua eta indartsua kaleetan, borrokan dauden enpresak eta sektoreak elkartuz, arlo publikoan zein pribatuan. Erakunde hauetatik behar duguna ez da eskuinarekin itunak egitea, baizik eta ezkerrekin fronte bateratu bat planteatzea, EAJren gobernua, bloke atzerakoi espainolista eta 78ko erregimenaz aspiratzea baimenduko diguna. Hori da langileak eta gazteak langabeziatik, prekariatetatik, etxe kalera-tzeetatik, pribatizazioetatik eta genero, arraza edo nazio zapalkuntza orotatik askatuko gaituen alternatiba bakarra gauzatzeko bidea: errepublika sozialista katalana eta Euskal Herria Sozialista.



Miloi bat manifestari baino gehiagok preso politikoak askatzeko aldarrikatu dute Bartzelonan

Borrokarekin jarraitu behar da garaipenera arte, langileen eta herriaren errepublika katalanaren alde!



ESQUERRA REVOLUCIONÀRIA
Catalunya

Azaroaren 11n, mobilizazio izugarri batean, miloi bat lagun baino gehiago atera ziren kalera. 3,3 km dituen Bartzelonako Carrer Marina leporaino bete zuten, preso politikoaren askatasuna aldarrikatzeko. Indar erakustaldi horrek salto kualitatibo bat erakusten du estatu zentralistaren eta PPren gobernuaren errepresioaren aurkako borrokan.

Masek garaipenera arte joan nahi dute

Milioika pertsonak ulertu dute 155. artikulua aplikazioa eta Catalunyako autogobernuaren indargabetzea, Jordien eta zortzi cosellersen atxilotetak eskubide demokratikoen aurkako era-

so larria direla. Gaur horiek dira; bihar, PPk, Ciudadanosek eta PSOEk neurri autoritario hauek justifikatzeko erabiltzen dituzten aitzakia berberarekin posible izango da edozein ekin-tzaile kartzelaratzeari: gazte, bizilagun, PAH bezalako mugimenduetako kideak, osasungintza eta hezkuntza-ren aldeko mareatako ekintzaileak, 78ko erregimen atzerakoia eta bere Konstituzioa zalantzan jar dezaketen ezkerreko militanteak.

Azken bi hilabeteetan izandako beste une batzuetan bezala, bloke espainolistaren erreakzioaren hauspoak milioika bultzatu ditu berriz ere kaleak hartzera. Beste behin, determinazio osoa erakutsi dute, urriaren 1ean, poliziaren errepresio basatiaren aurrean erabakitzearen duten eskubidea defendatu zutenean edo 3an

greba orokorrarekin Katalunia gelditu zutenean bezala. Azaroaren 11ko manifestazio izugarria, beste borroka egun handi batetik hiru egunetara izan zen. Azaroaren 8an, komunikabideen gezur kanpainaren gainetik, patronalak eta enpresa handiek zabaldu zuten beldurrezko kanpainaren gainetik eta CCOO eta UGTek greba orokorrari egin zioten oposizioaren gainetik, ehun milaka gazte eta langilek kaleak hartu genituen, trafikoa eta trenbideak moztuz, eta manifestazio espontaneoak eginez Kataluniako geografiaren txoko guztietan.

Venezuela eta Errusia

Zaila da denboran hainbeste eusten duen eta hain indartsua eta masiboa den mobilizazio baten aurrekariak



aurkitzea. Horren ondorioak geroz eta nabarmenagoak dira bloke erreakzionario monarkikoan. Herri katalanaren aurka komunikabideetatik momentu oro jaurtitzen ari diren manipulazio eta gezurren kanpainak ez du amaierarik, eta pauso bakoitzeko higuingarriagoa bilakatzen da. Sistemaren gainbehera autoritario eta antidemokratikoa zein nabarmena den erakusten du horrek.

Orain gobernuak, berriz ere Cs eta PSOEren babesarekin, poltsikotik atera du krisi katalana Putin eta Madurok eragin dutela, sare sozialak Catalunya-ren inguruko “desinformazioarekin” saturatuz.

78ko erregimenaren krisi politikoa handiena “kanpoko etsaiaren” errua dela zabaltzeko kanpaina hau, desesperazio erakustaldi bat besterik ez

da. Gainera, abenduaren 21eko hauteskundeetarako Errusiaren eta Venezuelaren “injerentzia” posible bat iradokitzen ari dira; horrela, emaitzak bloke atzerakoiaren aurkakoak badira zalantzan jartzeko “errelatoa” eraiki nahi dute.

Ezinegona eta alternatibak bilatzea ezkerreko oinarrien artean

Urriaren 1ean eta 3an, masek beren ekintza zuzenarekin errepresioa garaitu ondoren, Catalunya krisi iraultzaile bat ireki zen. Espainiako, Kataluniako eta Europako burgesiak askoz hobeto ulertu dute hori ezkerreko agintari erreformista askok baino. Horregatik ari dira aplikatzen azken hamarkadetan aurrekaririk ez duten neurriak. Krisi iraultzaile hori itxi na-

hi dute masei eskarmentu bat emanez eta beren legeak eta Estatua desafiatu daitekeen ideia ezabatu.

Gertaerek proban jarri dituzte erakunde guztiak, eztabaida garrazak sortu dituzte, krisiak eta baita hausturak ere. Pedro Sanchezen PSOE eta CCOO eta UGTko kupula burokratikoak, Rajoyren atzean jarri dira 155. aren aplikazioa babestuz. Zapalkuntza nazionalaren aurkako eta errepublikaren aldeko Kataluniako herriaren borroka mespretxatuz, PSOEko eta CCOO eta UGTko buruzagiek langile sektore aurreratuenetatik, gazterien gehiengo zabaletik eta erdi mailako langile pobretuetatik banatzen dituzten amildegia handitu dute. Beren kontserbadurismoak eta interes materialek Estatuarekin fusionatzera bultzatzen dituzte; izan ere, konbentziturik daude beren patua sistemaren egonkortasunarekin loturik dagoela.

Era berean, beren burua indar errepublikar eta eraldatzaile gisa duten Podemos eta IU bezalako alderdiek, U1aren erreferendumen legitimitatea defendatu ordez, Estatuko gainontzeko langileei argi azaldu beharrean zer den jokoan dagoena eta kaleetan errepresioaren aurkako borroka antolatu ordez, “ekidistantziako” estrategia trazatu dute, erabakitzeko eskubidea amorrutik errepremitzen duen Estatu eta botere politiko berberei akordio bat eskatuz “legezko eta bermedun erreferendum bat” lortzeko. Unidos Podemoseko agintariek uko egin diote nazionalismo espainolistaren kanpainari modu eraginkor batean aurre egiteari. Errepublika katalanaren defentsa PPren gobernu ustela eraisteko borroka irekitzeko aukera handia alboratu dute, murrizketekin eta austeritatearekin amaitzeko eta gainontzeko Estatu mailan langileen errepublikari bidea irekitzeko elkertasunezko jarraera hartzeko aukera alboratuz.

Noski, matizak eta ezberdintasunak daude. Alberto Garzon IUko koordinatzaile orokorra izan da urruen iritsi dena. Garzonek ez du onartzen kartzelaratuak izan diren ANC eta Omniumeko buruzagiak eta Goberneko consellersak preso politikoak direnik. Gainera “sabian a lo que se atañe” eta “Puigdemont no se puede ir de rositas” bezalako adierazpenak egin ditu. Posizio hori erabat lotsagarria da bere burua marxistatzat edo komunistatzat dunerarentzat. Iraultzaile oro-ren lehen egingizuna, Che Guevarak

esaten zuen bezala, edozein injustizia eta eskubide demokratikoen aurkako erasoren aurka borrokatzea da, gertatzen den tokian gertatzen dela ere. Errepublikakatalana babesten duen masa mugimendua elite katalanen mugimendu bat bezala aurkeztea errealitatea faltsutzea da. Mugimenduak erabat gainditu ditu PDeCATeko buruzagiak, eta burgesia katalanak erabat gainditurik ikusten du bere burua; errepublika katalana aldarrikatzea ehun milaka pertsonentzat pauso erabakigarri bat bezala ikusten da, 78ko erregimenarekin hausteko, murrizketekin amaitzeko eta beren askapen borrokan aurrera egiteko, maila nazionalen nahiz sozialean.

Errepublikakatalana langile klasearen interesen aurka doala eta komunistek ezin dutela hori babestu esatea, Garzonek esan duen bezala, marxismoaren ideien faltsifikazio baldar bat da. Marxismoak beti defendatu du nazioen autodeterminazio eskubidea, nazio bat bere borondatearen aurka muga batzuen barnean mantentzeko eta, horrela nahi badu, bere independentzia aldarrikatzea debekatzeko saiakera ororen aurkako borroka bezala ulertuz. Garzonek planteaturiko ideia horiek burgesiak erabiltzen ditu nahasmena eta aurreiritzi espainolistak areagotzeko, bai Katalunia barnean bai kanpoan.

Pablo Iglesiasek askoz ere argiago egin du Gobernuaren eta Estatuaren neurri autoritarioen aurka, eta Catalunyan eta preso politikoak egotea salatu du. Halere, hori ez da nahikoa, gero uko egiten bazaio errepresioaren aurka mobilizatzeari, errepublika katalanaren aldeko mobilizazio masiboaren izaera iraultzailea azaltzeari eta esaten bada U1eko emaitza ez dela legitiimoa. Zer dago legitiimoagorik, poliziaren borren eta gomazko piloten aurka konkistaturiko bozketak bat baino? Gainera, kontua izan-

da 2,2 milioien parte hartzeak hauteskunde europarrena gainditu zuela eta errepublika katalanaren babesak Estatutak baino baiezko bozka gehiago lortu zituela.

Herritarren borondate demokratiakoaren aurrean legea eta Estatuaren lehenean dituzten posizio horiek —frankismoaren herentziatik datorrena eta aginte kapitalista babesteko egindako legalitatea dena—, Podemosi azken urteetan amore emandako sozialdemokraziaren aurrean aurrera egitea baimendu dien printzipio eta ideiak ukatzea esan nahi dute. Ez alferrik, Podemosek herritarrei 78ko erregimena garaituko zuen erakunde gisa aurkeztu zien bere burua, austeritatean errotutako politikari, langabezia masiboari, prekarietateari eta baliabide publikoak banka eta enpresa handien onurarako lapurtzeari amaiera emango ziona.

Hain zuzen ere, diskurtsoaren eta praktikaren kontraesan hori izan da Catalunyan Podemosen banaketara eta Albano Dante Fachin koordinatzaile orokorra alderditik ateratzera eramane duena, Podemosen jatorrizko printzipioetan posizio askoz ere leialagoa mantendu baitu gertaera hauen aurrean. Albano Dantek, bere burua internazionalista gisa identifikatzearekin batera, modu zuzenean defendatu du Podem-eko militanteak borrokako lehen lerroan egon behar dutela, lehenik urriaren 1eko erreferenduma gauatzeko eta, orain emaitza betetzeko, estatuaren errepresioaren aurrean errepublika katalana deituz eta defendatuz.

Albano Danteren lana desautorizatuz eta ahulduz, Podemoseko estatu mailako zuzendaritzak, azkenean, dimititzera eta erakundea uztera bultzatu du. Jazarpen horrek guztiz kontrastatzen du aurreiritzi espainolistak erreproduzitzen dituzten buruzagi-ko indulgentziarekin, Bescansarekin,

esaterako, edo Catalunyako kasuan Podem konfluentziako (Catalunya Si que es Pot) Iniziatibako buru, Parlamentuko bozeramaile eta CCOOko idazkari ohi den Joan Coscubielarekin.

Estatu mailako Podemoseko zuzendaritzak Albano Dantek proposaturiko ideiei babes tinkoa eman izan balie, askoz ere errazagoa izango zen errepublikaren alde eta errepresioaren aurka borrokan dauden masa mugimenduen eta PPren aurka dauden baina Puigdemontek eta PDeCATeko politikari burgesek jokatzen duten paperarerarekiko mesfidantza duten langile klase katalaneko sektoreen arteko zubiak indartzea. Hau da, hain zuzen ere, egitekoa: politikari hauetatik erauztea askapen nazionalen mugimenduen zuzendaritza eta gizarte eraldatzeko borrokarekin lotzea, oligarkia katalan eta espainolaren zapalkuntzarekin amaitzeko.

“Komunen” militanteen artean, are gehiago, beren hautesleeta milaka eta milaka pertsonen artean, ezinezkozko jarrera dago, beren buruzagi gehienek izan duten posizionamenduarekin. Ezinegon hori Ada Colauen posizio aldaketetan ikusi da: Barcelona en Comúko oinarriak erabaki du PSCrekin duen udal gobernu haustea, alderdi honek estatu errepresioari grinez eman dion babesaren aurrean protesta gisa. Inkesten arabera, CatComúko botanteen herenak baino gehiagok momentu hauetan Catalunyen independentzia babestuko luke.

Mobilizazioa jarraitu garaipenera arte

Azaroaren 8an eta 11n erakutsitako indarraren ondoren, beharrezkoa da borrokatzen duten ezkerreko erakundeek eta azken egunetan indarra eta bultzada hartu duten Errepublikaren Defentsako Komiteek (CDR) ekinga plan bat garatzea, mobilizazio

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 708 281
Twitter: @EHSozialista - @EzkIraultzailea • Facebook: Ezker Iraultzailea - Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!

Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!

Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.



indartsu, masibo eta jarraitu bat bultzatzeko, irabazi arte. Hori da modurik hoberena abenduaren 21eko hauteskundeetan PPK, Ciudadanosek eta PSOEek eraturiko bloke erreakzionario espainolista garaitzeko.

Akats larria izango litzateke kaleko mobilizazioa hauteskunde jokoaren bigarren mailako laguntzaile gisa ulertzea. Alderantzikoa da: Estatuaeren errepresioa garaitzeko eta urriaren 1ean herriak demokratikoki erabakitakoa errealtate egiteko modu bakarra, orain arte aurrera egiten lagundu digun bide berbera mantentzea da. Mobilizazioko deialdi serio bat egon den bakoitzean, masek aurreikuspen guztiak gainditu dituzte. Kalea bertan behera utzi denero, mugimenduko sektore eskuindarrekin, PDeCATEko agintari katalanak buruan, atzera egiten saiatu dira eta emaitza erreakzioa indartzea izan da.

Adibideak asko dira. Carme Forcadellen eta Parlamenteko gainontzeko mahaikideen defentsan jarraitutako estrategia, errepublikaren aldarrikapena "sinbolikoa" zela esanez eta "marko konstituzionalaren barnean mantentzea" konprometituz; akatsa da. Tribunal Gorenak Forcadell eta

beste auziperatuekin ezberdin jokatutako badu Jordiekin edo Governarekin Auzitegi Nazionalak egin zuenarekin alderatuz, ez da izan kontzesio horienatik, masen mugimendua berpizteari zaion beldurratik baizik. Urriaren 1 eta 3an mobilizatu ziren milaka eta milaka pertsona, batez ere langile klaseko sektore esanguratsua, gerora ez ziren mobilizatu, baina berriz atzera dira kalera azaroaren 8 eta 11an. Burgesiaren ordezkari azkarrenak beldur dira PPren eta bere aliatuen erreprezioaren gaitzespenak, monarkiak eta 78ko erregimenak duen arbuioarekin baturik, baldintzak sor ditzaketelako errepublika katalanaren kausara lotzeko, behin betiko.

Atzera eginez ez dugu garaituko burgesia espainiarrak eta katalanak antolaturiko beldurraren kanpaina basatia edo langile klase barnean banaketak sortzeko erabili den "españolismoaren" pozoen kriminala. Dagoeneko, erreakzionario espainolistak hori erabiltzen ari dira: zalantzak eta nahasmena zabaltzen saiatzen ari dira Forcadellek Konstituzioaren marko onartuz eta errepublikaren aldarrikapena ekintza sinboliko huts gisa hartuz eginiko deklarazioak.

Ez dugu lortuko garaipena erretorikarekin eta trikimailu legalekin. Hori politiko burgesen metodoa da eta dute mugimenduak dituen aldaketarako aspirazio sakonak traizionatzeko momentua ikusten dutenean atzera egiteko erabiltzen dituzte. 78ko erregimen antidemokratikoa garaitzeko modu bakarra, errepublika katalana errealtate egiteko borrokatzea eta honi eduki sozial bat ematea da, PPK eta PDeCATEk aurrera eramanez dituzten politiken aurka, murrizketekin, etxe kaleratzeekin eta ustelkeriarekin amaituz, kalitatezko hezkuntza eta osasungintza publikoa bermatuz, lanpostu duinak eta banka nazionalizatuz herritarren kontrolpe demokratikoan. Soilik errepublika sozialista katalanaren aldeko borroka planteatuz lortuko da langile eta gazte mugimendua Catalunya barnean eta kanpoan batzea: klaseko zapalkuntzarekin amaitu eta herritarren behar guztiak asetzeko nahikoa baliabide bermatuko dituen errepublikaren aldeko borroka planteatu behar da. Horrek, gainera, baimenduko luke Europako milioika gazte eta langileren sinpatia irabaztea, eta Estatu espainiarraren erreprezio gaitasuna ahulduko luke.

8. ORRIAN JARRAITZEN DU

Milioi bat manifestari baino gehiagok preso politikoak askatzeko aldarrikatu dute Bartzelonan

Borrokarekin jarraitu behar da garaipenera arte, langileen eta herriaren errepublika katalanaren alde!

4. ORRIAN HASTEN DA

Borrokatzen duen ezkerreko fronte bateratu baten alde. Langileen eta herriaren errepublika katalan baten alde

Catalunyan ireki den krisi iraultzailearen sakontasuna eta azken egunetan mugimenduak berriz ere agertu duen erreserba eta bultzada harrigarriak bere eragina edukitzen ari da erakundeen barnean, eta aldaketa politiko garrantzitsuak eragiten ari da. ERCk bere oinarriaren presioa

dela eta, uko egin dio PDeCATekin koalizioa errepikatzeari. Orain dela gutxi, ANCko sektore zabalen kritikak argitara eraman ziren, beren arabera Estatuaren errepresioaren aurrean zuzendaritzak ez zuelako egokiararen pareko erantzunik eman eta eraginkortasunik eza salatuz. Azaroaren 12ko igandean Catalunya en Comúko militanteek, %54ko bozka alde, Bartzelonan PSCrekin zuen udal gobernuaren kolaborazioa haustea erabaki zuten. Apur bat lehenago, Albano Dante eta buruzagi eta militante

ohien kopuru esanguratsu batek Som Alternativa sortu zuten, momentu hauetan beren konfluentzia posiblea eztabaidatzen dutelarik, errepublika katalana defendatzen duten beste hautagaitza batzuekin, esaterako CUP edo ERCrekin. 12ko igande berrean, CUPEko militanteek asanblea orokor batean 180º-ko biraketa egitea erabaki zuten, zuzendaritzak azken bi urteetan PDeCATi emandako babesari dagokionez. Taktika hori erabateko akatsa izan da, erraztu egin baitu convergenteak "prozesaren" buruan mantentzea, une erabakigarrietan hori geldiaraziz, aldarrikapen sozialak txertatzea galaraziz eta langile klase katalaneko sektore esanguratsuak irabazteko helburua zailduz.

Esquerra Revolucionariatik CUP, Podem, Catalunya en Comú, Som Alternatibari dei egiten diegu borrokatzen duen ezkerrearen fronte bateratu bat eratzeko, 78ko erregimenaren aurka eta CDRen antolakuntzan eta zabaltzean oinarritzeko, kalean mobilizazio orokorra, jarraitua eta indartsua aurrera eramateko, horrela bloke atzerakoi espainolista garaitu eta herriaren eta langileen errepublika katalana gauzatzeko.

Antolatu zaitez

EZKER IRAULTZAILEAN

Euskal Herria Sozialista baten alde borrokatzeko

- Kanpora 155a! Preso politiko guztiak askatu. Kanpora Polizia Nazionalaren eta Guardia Zibilaren indarrak Kataluniatik.
- Lan eta pentsioen kontraerreformen indargabetzea. Jubilazioa 60 urtetara soldataren %100arekin eta errelebo kontratuak gazteentzat.
- 1.100 eurotako gutxiengo soldata eta 35 orduko lanaldia astean, soldata murrizketarik gabe.
- Etxe kaleratzeak debekatzea. Etxebizitza publikoen parkeak alokairu sozialekin, bankuen eskuetan dauden etxebizitzak desjabetuz.
- Pribatizaturiko zerbitzu publikoak bermunizipalizatzea, langileak mantenduz eta ugarituz eta lan eskubideak errespetatuz.
- LOMCE eta 3+2 kanpora. Kalitatezko hezkuntza publikoa, demokratikoa eta doakoa, haurtzarotik unibertsitatera arte.
- Osasungintza publiko duin, doako eta unibertsalerako eskubidea.
- Benetako elkartasun konkretua errefuxiatuekiko: kuporik eta barneratze esparrurik ez. Atzerriko Legearen indargabetzea eta CIEak ixtea.
- Adierazpen, bilera eta antolakuntza eskubideak osorik bermatzea. Mozal legearen indargabetzea.
- Bankaren eta sektore estrategikoen nazionalizazioa, pertsonak erreskatatzeko eta gehiengoaren ongizatea bermatzeko.
- Autodeterminazio eskubidearen alde, Catalunyan, Euskal Herrian eta Galizan. Errepublika sozialista katalanaren alde, eta errepublika sozialista federal baten alde, Estatu espainiarra osatzen duten herrien eta nazioen batasun libre eta boluntarioan oinarritua, horrela erabakitzen badute.